



X/2025 Foru Araua, abenduaren xxkoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2026. urterako Aurrekontu Orokorrak onesten dituen.

ZIOEN AZALPEN

Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2026. urterako Aurrekontu Orokorrek lurraldearen erronkei aurre egiteko tresna eragile bat izan behar dute, eta, alde horretatik, legegintzaldi honetako Plan Estrategikoaren 118 ekintza lerroak oinarri hartuta, foru arau proiektu honek bektore modura jarduten du Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateen politika publikoak inplementatzeko garaian.

2026ko Aurrekontu Orokorrek hazkunde ekonomikoak eta enplegu sorrerak markatutako testuinguru batean prestatu dira. 2024an Euskadiko ekonomia % 2,5 hazi zen (2023an baino puntu erdi bat gutxiago), 2025eko lehen sei hilekoan % 2,1 egin du gora, eta, 2026rako, % 1,9ko hazkunde erreala eta % 4ko hazkunde nominala espero dira. Lan merkatuak bizi-bizi jarraitzen du, eta joera positiboa erakusten du ekonomiaren hazkunde egonkorragatik.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako ekonomiak ez dio ihes egiten gero eta aldakorragoa den ingurune politikoari, zeinaren ezaugarri nagusiak baitira Ukraina eta Gazako gatazka armatuak, batetik, eta EBko herrialde nagusiek defentsa, teknologia eta energia arloan lortu nahi duten autonomia estrategiko handiagoa, bestetik. Horri gehitu behar zaio iaz baino ingurune askoz protekzionistago eta zatikatuagoa dugula, batik bat AEBen muga zergek ekarri duten politika oldarkorragatik, zeinaren ondorioz Europa eta Txina beste posizionamendu bat hasi baitira hartzen merkataritzaren taulan, nahiz eta horren efektuak oraindik ez diren argi ikusten. Seguraski, horiek dira elementurik esanguratsuenak, baina badaude beste batzuk ere elkarrekin konbinatuta ziurgabetasun maila handia sortzen dutenak, eta 2026ko ekitaldiari ekiteko garaian aintzat hartu beharko direnak.

Nolanahi ere, elementu positiboak ere ikusten dira, hala nola inflazioa moderatu izana, epe ertainean % 2ko helburura hurbilduz joan baita, edo bai soldatetan eta bai giltzarri diren sektoreetako prezioetan izandako igoera arina, EAEko eta Gipuzkoako ekonomiaren portaera hobetzea ekarri duena. Era berean, prezioen igoeraren erritmoa izaten ari den egonkortze

Norma Foral /2025, de xx de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2026.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2026 deben servir como palanca para afrontar los retos del territorio y, en este sentido, tomando como base las 118 líneas de acción del Plan Estratégico de la vigente legislatura, el presente proyecto de norma foral actúa como vector de implementación de las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa y del resto de entidades que conforman el sector público foral.

Los Presupuestos Generales de 2026 se configuran en un contexto de crecimiento económico y creación de empleo. La economía vasca ha crecido un 2,5% en 2024 (medio punto menos que en 2023), el primer semestre de 2025 se salda con un crecimiento del 2,1% y para 2026, se prevé un crecimiento real del 1,9% y un crecimiento nominal del 4%. El mercado de trabajo sigue mostrando dinamismo y se beneficia del crecimiento estable de la economía.

Aún así, la economía guipuzcoana es permeable a un entorno geopolítico cada vez más volátil, marcado por conflictos armados como los de Ucrania y Gaza y la necesidad de contar con mayor autonomía estratégica -en defensa, tecnología y energía- por parte de los principales países de la UE. A ello se suma un entorno mucho más proteccionista y fragmentado que el que existía hace un año, sobre todo a raíz de la agresiva política arancelaria de los EEUU, que está trayendo el reposicionamiento de Europa y China en el tablero comercial, pero cuyos efectos no terminan de despejarse. Son quizás los más destacados, pero hay otros muchos elementos más que, combinados entre sí, generan un elevado grado de incertidumbre, y con ellos se deberá afrontar el ejercicio 2026.

Con todo, también se observan elementos positivos como la moderación de la inflación, que ha ido acercándose al objetivo del 2% a medio plazo, o la moderación del crecimiento salarial y de los precios en sectores clave, propiciando el mejor comportamiento de la economía vasca y guipuzcoana. Asimismo, la tendencia a la estabilización en el ritmo de incremento de los



joera EBko beste ekonomia garatuetan ere gertatzen ari da, eta horrek aukera eman dio Europako Banku Zentralari azken urtean interes tasa ofizialak murriztuz joateko eta, horrekin batera, enpresek, familiek eta administrazioek jasaten duten zama finantzarioa ere arintzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2024-2027 Plan Estrategikoak ekintza politikoaren bide orria markatzen du, 2026ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorren proiektua ere konfiguratzearaz gain. Bertan tamaina handiko helburuak aurreikusten dira, honako hauek, besteak beste: Gipuzkoa zaintza zerbitzuen lurralde gisa finkatzea, Gipuzkoako ekonomiaren sendotasuna eta lehiakortasuna handitzea, jasangarritasunean aurrera egitea eta erreferente bihurtzea, eta eremu guztietan lankidetzeta eta komunitate lana sustatzea.

Zainketen eremuan, helburua izango da pertsonen ahalik eta arretarik onena ematen jarraitzea, zaintza zerbitzuen eredu berritzailean aurrera egitea eta hainbat arlotan gertatzen ari den goranzko eskariari erantzun ahal izatea (biztanleriaren zahartze prozesua, mendekotasuna, haurren eta nerabeen babesa, migrazioa, gizarteratzea edo genero indarkeria dira arlo horiek). Gizarte kohesioaren eta bizi kalitatearen ikuspegitik Gipuzkoak erreferentziatzeko lurralde bat izaten jarraitzea izango litzateke horren xedea. Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak eremu horretan dauden zerbitzu eta azpiegitura beharrak zehazten ditu. Bada, haren bide orriari jarraituta, aurrekontu proiektuan honako hauek garatzea aurreikusten da: Adinberri zentroa eraikitzea zahartze prozesua ikertzeko erreferentzia zentroa izan dadin; egoitzak eta zentroak eraikitzea eta zainketen eredu berrira egokitzea; edo foru sozietate berri bat abian jartzea, ekipamendu berriak sortzeko, hirugarren sektoreko entitateekin eta/edo udalekin batera.

Ekonomiari dagokionez, apustua argia da oso: industriaren ekonomia errotzea, espezializazioa lortzea, Gipuzkoako enpresa sareak egokitapenerako duen gaitasuna indartzea, laguntza ageriko bat ematea hazkunde ahalmen handiko jarduera sektore berriak garatu eta finkatu daitezkeen, teknologia parkeak indartzea, hurbiltasuna agertzea enpresen premia espezifikoetara erantzuteko garaian, arreta berezia jartzea lehen sektorearen profesionalizazioan eta hura indartzeko prozesuan, edo esku hartze eremu berriak aztertzea Gipuzkoak enpresa proiektu sendoak ezarri eta garatzeko lurralde lehiakorra izaten jarrai dezan. Trakzio ahalmen handiko proiektu batzuk, hala nola Mubil, Gantt-Biociencias edo IBM-Euskadi Quantum

precios es común al resto de economías desarrolladas de la UE, permitiendo al Banco Central Europeo ir reduciendo los tipos de interés oficiales en el último año y, con ello, moderar la carga financiera que soportan empresas, familias y administraciones.

El Plan Estratégico 2024-2027 de la Diputación Foral de Gipuzkoa marca la hoja de ruta de la acción política y la configuración del proyecto de Presupuestos Generales del ejercicio 2026, enfocados a la consecución de grandes objetivos: consolidar a Gipuzkoa como territorio de cuidados, aumentar la fortaleza y competitividad de la economía guipuzcoana, avanzar y ser referentes en sostenibilidad y promover la colaboración en todos los ámbitos y el trabajo en comunidad.

En el ámbito de los cuidados, el objetivo seguirá siendo seguir prestando la mejor atención a las personas, avanzar en un modelo de cuidados innovador, y conciliar la evolución creciente de la demanda en múltiples ámbitos, tales como el envejecimiento poblacional, la dependencia, la protección a la infancia y la adolescencia, la migración, la inclusión social o la violencia de género, para que Gipuzkoa siga siendo un territorio de referencia en términos de cohesión social y calidad de vida. El Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa determina las necesidades de servicios e infraestructuras en este ámbito y, siguiendo su hoja de ruta, el proyecto de presupuestos aborda la construcción de Adinberri como centro de referencia en la investigación del envejecimiento, la construcción y adecuación de residencias y centros al nuevo modelo de cuidados, o la puesta en marcha de una nueva sociedad foral para crear nuevos equipamientos en colaboración con entidades del tercer sector y/o ayuntamientos.

Por lo que se refiere a la economía, la apuesta es clara: arraigo de la economía industrial, especialización, fortalecimiento de la capacidad de adaptación del tejido empresarial guipuzcoano, apoyo inequívoco al desarrollo y consolidación de nuevos sectores de actividad con gran potencial de crecimiento, refuerzo de los parques tecnológicos, cercanía para responder a las necesidades específicas de las empresas, especial atención y reforzamiento de la profesionalización del sector primario, o explorar nuevos ámbitos de intervención que consoliden el posicionamiento de Gipuzkoa como territorio competitivo para la implantación y desarrollo de proyectos empresariales sólidos. Proyectos con alto potencial tractor como Mubil, Gantt-Biociencias o la



Computational Center-ren superordenagailu kuantikoaren instalazioa, apustu horren adibide onak dira, dudarik gabe.

Bestalde, trantsizio ekologikoarekin eta klima aldaketaren aurkako borrokarekin lotutako erronkei aurre egiteko ekintza publikoa ere nabarmendu beharra dago. Izan ere, Foru Aldundiak tinko eusten dio garapen jasangarriko politiketan erreferente izateko konpromisoari, bere ekintza publikoan ingurumenarekiko ikuspegia zeharka integratuz. Horren erakusgarri dira trantsizio energetikoaren aldeko apustua, kalitatezko bide azpiegiturretan oinarritutako mugikortasun jasangarri eta lehiakorra, abangoardiako garraio publikoaren eskaintza, edo ekonomia zirkularraren sustapena, non Naturklima fundazioa edo Hondakin berrerabilgarrien berrerabilera prestatzeko Gipuzkoako Zentroa erreferente baitira.

Hortaz, 2026ko ekitaldiko aurrekontua emaitzetara bideratutako ikuspegi argi batekin prestatu da, eta, Etorkizuna Eraikiz Estrategiaren esparruan, haren xedea da politika publikoak diseinatu eta monitorizatzea adierazle maila desberdinekin neurtu daitezkeen helburuak ezarri. Gainera, aurrekontuak urte anitzeko ikuspegia izateak aukera ematen du haren barruan zeharkako politikak integratzeko (genero berdintasuna, hizkuntza berdintasuna eta herriarren partaidetza), haien aurrerapen maila aurrekontu programen ondorioekin lotzea ahalbidetzen duelako.

Aurreko ekitaldiari dagokionez, aurrekontu osoa % 6,71 hazi da, aurrekontu propioa % 6,44 hazi da eta Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa, aldi, %7,06 handitu da termino homogeneoetan.

Gastu-politikei dagokienez, hasierako zuzkidurak beharrak betetzeko nahikoak ez badira, ekitaldian zehar zabalgarritzat jo dira gizarte-gasturako eta errepideko bidaiari-garraiorako kredituak, eta kreditu horiek aurrekontu-beharrak estali arte hornitzeko helburua adierazi da.

Halakotzat hartzen dira, halaber, finantzaketa lotuko proiektuei eta proiektu estrategikoei lotutako ordainketa-kredituak, bai eta ekitaldian zehar sortzen diren kreditu gehigarriak ere, honako beharrian hauei erantzuteko: i) egoera ekonomikoa, ii) finantzaketa lotuko proiektuak gauzatzea, iii) proiektu estrategikoak gauzatzea, iv) egoitza-eredu berria garatzearekin lotutako inbertsioak, edo v)

instalación del superordenador cuántico en el IBM-Euskadi Quantum Computational Center son, sin duda, un buen ejemplo de esta apuesta.

También debe señalarse la acción pública para afrontar los retos asociados a la transición ecológica y a la lucha contra el cambio climático, de forma que la Diputación Foral mantiene firme su compromiso de ser un referente en políticas de desarrollo sostenible, con un enfoque transversal e integrado de la perspectiva medioambiental en su acción pública. Prueba de ello, es su apuesta por la transición energética, la movilidad sostenible y competitiva basada en infraestructuras viarias de calidad y una oferta de transporte público de vanguardia, o el fomento de la economía circular, con centros de referencia como Naturklima o el Centro de Preparación para la Reutilización de residuos potencialmente reutilizables de Gipuzkoa.

En consecuencia, el presupuesto del ejercicio 2026 se ha elaborado con un claro enfoque orientado a resultados que, en el marco de la Estrategia Etorkizuna Eraikiz, busca el diseño y la monitorización de las políticas públicas en base al establecimiento de objetivos que pueden medirse con distintos niveles de indicadores. Además, el enfoque plurianual del presupuesto permite la integración de las políticas transversales de igualdad de género, igualdad lingüística y participación ciudadana, ya que posibilita asociar su grado de avance al efecto de los diferentes programas presupuestarios.

Respecto al ejercicio anterior, el presupuesto crece un 6,71 %, el presupuesto propio crece un 6,44 % y el Fondo Foral de Financiación Municipal, en términos homogéneos, se incrementa en un 7,06 %.

Con relación a las políticas de gasto, en caso de que las dotaciones iniciales puedan resultar insuficientes para cubrir las necesidades, a lo largo del ejercicio se han calificado como ampliables los créditos destinados a gasto social y de transporte de viajeros por carretera, a fin de dotar dichos créditos hasta cubrir las necesidades presupuestarias.

También tienen esta consideración, los créditos de pago vinculados a los proyectos que cuentan con financiación afectada y a proyectos estratégicos, así como los créditos adicionales que se creen a lo largo del ejercicio para cubrir necesidades surgidas de: i) la coyuntura económica, ii) la ejecución de proyectos con financiación afectada. iii) la ejecución de proyectos estratégicos, iv) las inversiones vinculadas al desarrollo del nuevo



arriku-kapitaleko inbertsioak, Gipuzkoako Lurralde Historikoarentzat interes estrategikoa duten enpresa berrien sorrera bultzatzeko eta lehendik dauden enpresen hazkundera eta sustraitzea sustatzeko.

Lurraldearen ongizatea garatzeko udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean beharrezkoa den lankidetzak kontuan hartuta, aurrekontu hauek 49,07 milioi euroko dirulaguntzak aurreikusten dituzte lurraldeko toki entitateen alde.

Aurrekontuen foru arauaren funtsezko edukia I. tituluan jasotzen da, bertan onesten baitira foru sektore publikoaren sarrera eta gastuen egoera guztiak, eta bertan finkatzen baita, orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuei dagozkien gastu fiskalen zenbatekoa.

Titulu horren barruan Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikitako partzuergoen aurrekontuko sarrera eta gastuen egoera orrien zenbatekoa sartzen da.

II. tituluak ezartzen du zein den Foru Aldundiaren zorpetze muga eta zenbaterainoko bermeak eman ditzakeen, eta Bidegi, SA merkataritzako foru sozietatearen zorpetze muga ere jasotzen da bertan.

III. tituluan jasota daude 2026ko ekitaldian zehar aurrekontu kredituen araubide orokorrak eta haien aldaketak izango dituzten berezitasunak. Zehazki, hauek: araubide orokorraren salbuespenak kredituen izaera mugatzaileari dagokionez; zabalgarritzat jotzen diren kredituak; konpromiso kredituak sortu eta banatzeko gehieneko muga; eta kreditu gaikuntzen eta txertaketen berezitasunak.

IV. tituluan aurrekontu kudeaketaren inguruko hainbat arau jasotzen dira (dirulaguntzenak, proiektu kofinantzatuenak, finantzaketa lotuko proiektuekin eta proiektu estrategikoekin lotutako funtsen kudeaketa, gastuaren exekuzioa mugatzekoak, eta egindako gastuaren udalerrikako banaketari buruzkoak), bai eta Batzar Nagusiei eta foru sektore publikoko gainerako entitateei transferentziak egiteko araubidea ere.

V. tituluak bi kapitulu ditu. Lehenengoan jorratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko eta foru organismo autonomoetako langileen eta pasiboen kredituei aplikatzen zaien araubidea, aurrekontu plantillaren osaera zehazten da, eta zehaztasun handiagoz arautzen dira

modelo de residencias, v) las inversiones en capital riesgo para impulsar la creación de nuevas empresas de interés estratégico para el Territorio Histórico de Gipuzkoa y así como para promover el crecimiento y el arraigo de las empresas existentes.

Atendiendo a la necesaria colaboración entre los ayuntamientos y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo del bienestar de este territorio, estos presupuestos contemplan subvenciones a los entes locales del territorio por una cuantía de 49,07 millones de euros.

El contenido esencial de la norma foral de presupuestos se recoge en el título I, donde se aprueban la totalidad de los estados de ingresos y gastos del sector público foral y se consigna el importe de los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Se incluye en este título el importe de los estados de gastos e ingresos de los presupuestos de los consorcios adscritos a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías de la Diputación Foral y el límite de endeudamiento de la sociedad mercantil foral Bidegi S.A.

En el título III se regulan las especificidades a aplicar durante el ejercicio 2026 al régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones. En concreto, las excepciones al régimen general del carácter limitativo de los créditos, la consideración de créditos ampliables, el límite máximo de creación y redistribución de créditos de compromiso, y las especificidades de las habilitaciones e incorporaciones de crédito.

El título IV recoge aquellas normas relativas a la gestión presupuestaria en materia de subvenciones, proyectos cofinanciados, gestión de los fondos vinculados a los proyectos con financiación afectada y a los proyectos estratégicos de la Diputación Foral de Gipuzkoa, limitación a la ejecución del gasto, municipalización del gasto realizado, así como al régimen de transferencias a las Juntas Generales y al resto de entidades del sector público foral.

El título V se desglosa en dos capítulos. El primero, está dedicado al régimen de los créditos de personal y de pasivos de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de los organismos autónomos forales, concreta la composición de la plantilla presupuestaria y regula de forma más precisa las



aurrekontuetako lehen kapituluari ezartzen zaizkion mugak.

Bigarren kapituluan, berriz, foru sektore publikoko gainerako entitateen plantillaren osaera eta langileria gastuak gehitzeko muga arautzen dira.

VI. tituluan, lurralde historikoko udalen finantzaketa ezartzen da.

VII. tituluan arautzen da Foru Aldundiak aldian-aldian Batzar Nagusietara bidali behar duen informazioa.

Foru arauaren edukia osatzeko, hainbat xedapen ematen dira: gehigarriak, iragankorra, eta amaierakoak. Horietan askotariko aginduak jasotzen dira.

Xedapen gehigarri gisa gehitu dira honako hauei buruzko aurreikuspenak: berandutze-interesaren, tasen eta katastro-balioen eguneratzea; Gipuzkoako Lurralde Historikoko AP-1 eta AP-8 autobideak eta AP-636 autobia erabiltzeko kanona; toki-korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztea, kreditu gehigarriak zehaztea; eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sinatutako zenbait hitzarmen izapidetzea.

Haren izaera eta ondorio juridikoak kontuan hartuta, beste bi xedapen gehigarri gehitu dira, zortzigarrena eta bederatzigarrena, aurrekontuaren egokitzapen teknikoei eta kontabilitate-saldoen arazketari buruzkoak, hurrenez hurren. Gehikuntza horrek araugintza-teknikari baino ez dio erantzuten, eta hasiera batean iragankor gisa sortutako xedapenen birkalifikazioa dakar, xedapen gehigarri bihurtzen baitira.

Xedapen iragankor bakarrak aurrekontua luzatzeko araubidea arautzen du.

Azkenik, lau azken xedapen sartu dira. Lehenengoak aldaketak egiten ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarillaren 17ko 3/2024 Foru Arauan, eta arauaren zenbait artikulua doitzen ditu, baterako tributazioari, likidazio-oinarri orokorrari, kuotaren minorazioari eta kenkariei buruzkoak.

Eta gainerako hirurak erregelamenduzko garapenari, aplikazio eremuari eta foru araua bera indarrean jartzeari buruzkoak dira.

limitaciones al capítulo primero de los presupuestos.

El segundo capítulo regula la composición de la plantilla y las limitaciones al aumento de gastos de personal del resto de las entidades del sector público foral.

El título VI establece la financiación de los municipios del territorio histórico.

El título VII regula la información periódica que debe remitir la Diputación Foral a las Juntas Generales.

El contenido de la norma foral se completa con diversas disposiciones adicionales, transitoria y finales, en las que se recogen preceptos de índole muy variada.

Se incorporan como disposiciones adicionales las relativas a la actualización del interés de demora, de las tasas, y de los valores catastrales; al canon de utilización de las autopistas AP-1 y AP-8 y de la autovía AP-636 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa; a la determinación de los límites máximos de las retribuciones de las y los miembros de las corporaciones locales; a los créditos adicionales; y a la tramitación de determinados convenios suscritos por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Atendiendo a su naturaleza y efectos jurídicos, se añaden dos nuevas disposiciones adicionales, la octava y la novena, relativas a las adaptaciones técnicas del presupuesto y a la depuración de saldos contables, respectivamente. Esta adición responde únicamente a técnica normativa y supone la recalificación de disposiciones inicialmente concebidas como transitorias, que pasan a ser disposiciones adicionales.

La disposición transitoria única regula el régimen de prórroga presupuestaria.

Finalmente, se incluyen cuatro disposiciones finales. La primera introduce modificaciones en la Norma Foral 3/2024, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ajustando varios artículos de la norma relativos a la tributación conjunta, base liquidable general, minoración de cuota y deducciones.

Y las tres restantes se dedican al desarrollo reglamentario, al ámbito de aplicación y a la entrada en vigor de la propia norma foral.